

## 4. koaderno: Pazkorako bidean

### Garizuma

(2011ko martxoak 9 – apirilak 23)

#### 1. Basamortura eraman, eta bihotzera mintzatuko natzaio” (Os 2, 16)

Garizumara heldu gara. Quid Prodest-en mezua indartsuen entzuten den liturgi aldia izango da, segurutik: bizi duzunaren balioa neurtzeko eta bide egokia hartu beharra. Berrogei egun dituzu sakon pentsatzeko, eguneratzeko. Denbora horretan zehar aukera izango duzu zein unetan zauden aztertzeko eta, Jainkoaren Hitzak gidatuta, basamortuan sartu ahal izango zara Jainkoak bihotzera hitz egin diezazun. Zure tentaldiei izena jartzeko moduan izango zara, haiei aurre egiten ikasteko (*lehenengo astea*). Jesusekin mendira igotzeko konbitea hartuko duzu, Aitak “maite duen semea” zarela aurkitzeko (*bigarren astea*). Samariako emakumeak bezala, “beste ur bat” edateko grina igarriko duzu eta zuretzat Jesus “betiko bizitaraino jauzi egiten duen ura” izango da (*hirugarren astea*). Jaiotzatik itsua zenaren bitartez zure itsutasunak ezagutu ahal izango dituzu eta sentitu Jesus dela ikusarazten dizun argia (*laugarren astea*). Azkenik, Lazaro, Marta eta Mariari laguntzean aurkituko duzu Jesusek, Bizitzak, heriotza guztietatik salbatzen zaituela (*bosgarren astea*).

Garizuman zehar *Quid Prodest*en indarrak ura, argia eta bizitza, hau da, Jesus bera aukeratzeko konbitea egingo dizu. Beste proposamen eta bizimodu batzuek, beharbada arreta handia jarri diezunek, ez dutela zure bihotza ukitzen igarriko duzu eta, beraz, ez zaituztela zoriontsu egiten. Berriro sentituko duzu Jesusen lilura apartekoa eta Bataioaren indar berritzailea.

Baliteke tentsio handia barruntatzea kontrako deien artean eta erabaki batzuk hartu behar izatea. Ez beldurrik izan. Hartu aurtengo Garizuma aukera berri bat balitz moduan. Zeure

buruari esan diezaiokezu: “Aurten bai”. Ez ahaztu Jesus basamortura bultzatzen duena ez dela deabrua, Espiritu Santua baizik. Zuri ere Espiritu Santuak laguntzen dizu ibilbide honetan “zure oinak harriarekin estropezu egin ez dezan”.

Aurreko aldietan bezala, koaderno honetan gogoeta batzuk aurkituko dituzu, hurrengo asteetan zuri laguntzeko. Pentsatu lasai-lasai. Lotu itzazu klaretar misiolariaren bizimoduarekin. Hartu behar duzun astia ariketak egiten joateko ere. Azken finean, kontua ez da irakurtzea bakarrik, norbere bizitza eskuartean hartzea baino. Eta, batez ere, zaindu kontu handiz “lectio divina”ko eguneroko ariketa. Ezer ez dago Jainkoaren Hitzaren besteko argi-emaille eta sendagilerik. Beharbada aurreko hiletan probatu duzu. Harekin haurren bihotzaz irekitzen garenean, hitza gure urratsetarako argimutila da eta argia da gure bidean (cf. *Sal* 119,105). Nekatuta edo aspertuta bazaude, haien ordeztu beste irakurketa “interesgarriago” batzuk egiteko gogoia baduzu, ez ahaztu “lectio” ariketa beti dela borroka, tentaldiak batzen diren tokia. Baina baita ere Jainkoarekin “bat egiteko denda”. Han Hark hitz egingo dizu, “aurrez aurre, gizonak lagunarekin hitz egiten duen bezala” (*Ir* 33,11).

Beste urte batzuetan akaso indar handiagoa jarri duzu beste batzuei laguntzen Garizuma bizitzen. Aurten, zure egiteko pastoralara ahaztu gabe, gogoratu zeu zarela konbertsiorako lehenengo zaituztena. Jarraitzaile izanik, besteei hobeto laguntzen ikasiko duzu. Utzi gidatzen Elizako liturgiaren bidetik eta eskatu Jainkoari *Quid Prodest*-en esperientzia berriro bizitzeko grazia eman diezazun, bizitzara daraman bidea aukeratzeko.

## 2. “Jerusalemera joateko erabaki sendoa hartu zuen Jesusek” (Lk 9,51)

### Bidea basamortuan hasten da

Basamortua da Garizumako lehenengo asteko lekua (cf. 2. **eranskina**). Guretzat toki fisikoa baino gehiago da espazio sinbolikoa. Hiria bera ere basamortu bihurtu daiteke: probarako lekua, baina baita norberaren buruarekin, besteekin eta Jainkoarekin bat egiteko ere (cf. 3. **eranskina**). Basamortuan ez dago iragarkirik zer bide hartu erakusteko. Sarritan aukera bat baino gehiago irekitzen zaigu: bedeinkapena edo madarikazioa (cf *Has* 11,26); bekatarien bidea edo justuen bidea (cf *Sal* 11-6); haragiaren jokabideak edo Espirituaren bultzadak (cf *Rm* 8,5-6); azken finean, bizitzara eramaten duena edo heriotzara bideratzen duena.

Batzuen artean bide bat hartu behar izatea da *Quid Prodest* esperientziaren muina. Gure sortzaileak sakon bizi izan zuen bere bizitzako basamortuan. Alde batetik, esperientzia antropologikoa da; hau da, norbere bizitza ulertzeko eta bizitzeko bi modu kontrakoren artean aukeratu beharra: batak betetasunera darama eta besteak porrotera. Baina, horrez gainera, esperientzia teologala da: Jainkoarengana konbertitzea, Hura bizitzako Jauna dela, edo norberaren interesetan geratzea. Claretetik, azken baten, Jesusek basamortuan sakon bizi izan zuena bizi zuen bere bizitzan (cf *Mt* 4,1-11). Horrela ulertuta, *Quid Prodest* esperientziak gure egoeraz jabetzen laguntzen digu eta aldaketa prozesu batean sartzera bultzatzen gaitu, Jainkoak guretzat amesten duen “moldea” har dezagun.

### Bizitzako bideko bidegurutzeak

Gogoratu atal honen izena ebanjelioko txatal batetik hartuta dagoela, Clareten bizitzan erabakigarria izan zen testutik: “Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu?” (*Mt* 16,26; *Aut* 68). Bizitzan zehar etengabe ageri bada ere, are gehiago une jakin batzuetan eta bokazioaren leialtasunaren erakusgarria da. Claretengan indar apartekoa hartzen du esanahia eta maiztasunarengatik. Agerian ikusten da haren bizitzako bidegurutze hauetan:

- *Denbora-eternitatea* bidegurutzean, modu berezian bizi izan zuen haurtzaroan eta gaztaroan. Ume-umetatik “asko pentsatzen nuen eternitatean” (*Aut* 701, 8), eta batez ere infernuko eternitatean (*Aut* 11): “Ideia hori da nire grinaren bidea” (*Aut* 15, 9 14). Aurrerago, Bartzelonan bizi izandako desengainuak zirela eta, ebanjelioko esaldia gogoratzen du “Zertarako du...?” “ume-umetatik” irakurria, eta inpresio handia egin ziona (*Aut* 68). Horrek eraginda, bizitza beste norabide batean jarri zuen (*Aut* 69, 75). Beraz, konbertsio une gogorra da.
- *Familiako segurtasunaren eta abadetzaren arteko bidegurutzean*. 1820an, maitasunaren, apaiz izateko eskaintzen da: “Gizaki gisa ez dut itxaropenik ikusten, baina Zu hain boteretsua zara, nahi baduzu, dena konponduko duzu” (*Aut* 40).
- *Munduko ospe eta segurtasunaren eta Kartusiako anonimatua eta salbamen-ziurtasunaren arteko bidegurutzean*: “(aitak) ikusarazi zidan zein itxaropen lausengari nituen nire gainean... eta berehala pena handitu zitzaion fraide kartusiar izan nahi nuela esan nionean” (*Aut* 77). “Jainkoak mundutik ateratzeko emandako” gurariak ziren (*Aut* 113).
- *Parrokiako bizitzako segurtasunaren eta atzerriko misioen erakarpeneren arteko bidegurutzea*: “Gurari handia sentitzen nuen uzteko (parrokia) eta misioetara joateko... horretarako heriotza jasan behar izanez gero ere” (*Aut* 112). Hitzaren eta otoitzaren bitartez, Jaunak predikatzaera deitzen zion (*Aut* 120): “Bidaia eta helburua kontsultatu nituen... Aita onak... aurrera egitera bultzatu ninduen. Orakulua balitz moduan entzun nion, eta berehala, bidaia hasi nuen” (*Aut* 121).
- *Parrokiako bizitzako segurtasunaren eta atzerriko herri-misioen arteko bidegurutzea*: “Prelatuak bidalitako lekuan etengabe predikatzeko irten nintzen, inon finkatu gabe” (*Aut* 193). “Horrela banekien Jainkoaren borondatea egiten nuela eta ez nire guraria” (*Aut* 194).
- *Misiolari apostoliko gisa bokazio betearen edota Kubako Artzapezpiku izatearen arteko bidegurutzea*. Kubako Artzapezpiku izateko izendapena hartu nuenean, “hilda bezala geratu nintzen” (49). “Izendapenak ikaratuta, ez nuen onartu nahi izan” (*Aut* 495). Gogoeta sakonaren ostean, azkenean onartu zuen, higuina gorabehera (*Aut* 496; cf 491, 495 498; EC 305 306).

- *Eragozpenen aurrean etsitzearen eta Kuban geratzearen arteko bidegurutzea.* 1853an dimisioa eskatzea erabaki zuen, baina axolagabe geratzen da. Hala ere, aukeratu ahal izatekotan, “pobreena, lotsagarriena eta mingarriena” aukeratzen du (EA 538). Handik urtebetera dimisioan pentsatu ere ez du egiten (EA 540 543).

- *Bizitzako ziurtasunaren eta heriotza onartzearen arteko bidegurutzean.* Holguineko atentatuaren ostean aita santuari idatzi zion. Hark erantzun zion geratzeko, arriskutsua izan arren (Propósitos 1856: EA 546 547).

- *Erreginaren aitorle izatearen eta etorkizun gorabeheratsuen arteko bidegurutzea.* Egoera horretan bizi du espiritu unibertsalaren eta derrigorrez Gortean finkatzearen arteko tentsioa; bokazio apostolikoaren leialtasunaren eta politikatik urruntzearen artean; apostolutzaren eta barruko bizitzaren artean (Aut 614: nota 120).

- *Erreginaren leialtasunaren eta aita santuaren leialtasunaren arteko bidegurutzea.* Clareték Jesusen hitzak entzuten ditu: “Antonio, alendu” (832) eta, otoitza, gogoeta eta kontsultaren bitartez, bereizketa fina egiten du (Aut 833, 952; batez ere EA 447 449).

- *Heriotzaren azken bidegurutzean:* “Lurra erbesteratzea izango da niretzat. Nire pentsamenduek, estimuek eta hasperenek Zerura joko dute” (Propósitos 1870: EA 588). Arte para saber bien morir (EA 624 628).

- *Fontfroideko segurtasun ezaren eta Erromako segurtasunaren arteko bidegurutzean.* Behin Fontfroiden, “iheslari gisa” sentitzen da eta Erromara joatea erabakitzen du, denen onerako (EC II p. 1484 1485).

San Antonio Maria Clareték bizi izandako prozesua pertsonala eta aldaezina da, baina

zenbait lerro ditu haren graziak dohain bera hartu dugunoi, bidegurutzei aurre egiteko argia ematen dutenak.

- Clareten bizitzak norabide aldaketa asko ditu. Bakoitzak haustura dakar berarentzat, baina beti jarraikortasun baten arabera: *Jainkoaren borondateari leialtasuna.*

- Hortik dator *ibiltaritzea klaretarra*, guztiz aparte iraunkortasunik eza eta bat-batekotasunetik, eta, aldiz, iraunkortasuna eta bereizketarekin lotuta. Jarrera horrek etengabe berrikuste eta berritze egoeran bizitzera darama.

- Jainkoak berari buruz zer gogo duen jakiteko, Clareték *otoitzera* jotzen du, *santuaren bizitzak* argia egiten uzten du (Aut 241, 259) eta, batez ere, une esanguratsuetan, garrantzi handia ematen die *kontsultari* eta *zuzendaritzea espiritualari* (Aut 81, 488, 496).

- Aldi berean jabetzen doa dena dela *graziaren lana*: Jainkoak guraria ematen dio erabaki gogorrek hartzen laguntzeko (Aut 113, 112) edo disgustua sentiarazten dio ez dezan gogoia jarri handikerietan (Aut 622), edo gaitzetatik salbatzen du ardurara har dezan loria handiagoa lortzeko eta arimak salbatzeko (Aut 751).

- Graziari ematen dion erantzunak eskari berriak agertzen dizkio eta aukera gero eta bazterrekoagoetara eramaten du: ondasun materialak uztea (Aut 359, 360), lanak eta larritasunak onartzea.

Zuk zure bizitzako bideari begiratzen diozunean, beharbada, bidegurutze batzuk bizi izan dituzula konturatzen zara; hau da, aurrean bide bat baino gehiago izan dituzun uneak, eta aukeratu beharreko uneak. Hurrengo ariketak horietarikoren bat aztertzen lagunduko dizu eta, azken finean, zure burua hobeto ezagutzen.

## 1. ariketa: Nire bidegurutzeak

**Oharra:** Ariketa honek denbora asko har dezake. Lasaitasuna eskatzen du. Ez duzu dena aldi batean egin behar. Ona izan daiteke elkartearen erretiro egunean egitea. Interesgarriena da behar duen arreta ematea zure burua hobeto ezagutzeko prozesuan lagungarri izan dakizun.

1. Lan-koadernoak irekiko dut. Beste orri bat hasiko dut. Izenburutzat **BIDEGURUTZEAK** hitza idatziko dut. Ariketa hasitako eguneko data ere idatziko dut.
2. Ariketa honetan nire bizitza jaio nintzenean hasitako bidetzat hartzen dut, oraingo aldira arte heldu dena. Une batzuetan aukeratu nuen bideaz besteko bat aukeratu nezakeen (adibidez: abokatu edo nekazari izan nintzekeen, erlijiosoa barik, indiarra edo espainiarra, alemana barik, nigeriarra edo argentinarra, ezkondua, ezkongabea barik, etab.). Beste era batera esanda, nire bizitzako une batzuetan, libreki edo egoerak baldintzatuta, bide jakin bat aukeratu nuen eta beste bat utzi, nire bizitza beste era batera moldatuko zuen bat. Aukera egiteko une horiei orain nire bizitzako “bidegurutzeak” esaten diet.
3. Hartu nitzakeen bideak, baina hartu ez nituenak, nire bizitzan aztertu gabeko aukerak dira, eta horietako batzuk arakatu nahi nituzke ariketa honetan. Adibidez, nire bizitzako une batean erabaki nuen helburu profesionalak eta afektiboak alde batera utzi eta klaretar egitea. Handik urteetara, lehenagoko gurariei jarraitzeko aukera baliteke irekita egotea niretzat oraindik. Denok ditugu barruan gordeta zenbait gaitasun kanpora agertzeko aukeraren zain, orain dela 3.000 urte faraoi baten hilobian geratu zen hazia bezala, oraintsu erein eta erne egin baita.
4. Isilik eta barrua bare, buruz egingo dut nire bizitzako bidea, bidegurutze handiak edo txikiak bereizteko ahalegina eginez; zerrenda batean idatziko ditut denak.
5. Zerrenda hori astiro-astiro irakurriko dut eta une honetan erakargarrien egiten zaidana aukeratuko dut.
6. Azkenean aukeratu nuen bidearen hasiera eta lehenengo urratsak deskribatuko ditut. Berez-berez idazten joango naiz. Ahal dela ez dut iritzirik emango. Burura etortzen zaidana paperera ekarri, besterik ez dut egingo.
7. Bidegurutzera itzuli eta nire burua imajinatuko dut hartu ez nuen bidea egiten, eta nora eramaten nauen ikusiko dut. Imajinatzen dudana zehatz idatziko dut, ezer kritikatu gabe, iritzirik egin gabe, nire burua aztertu gabe.
8. Ariketa amaitzean, atsedendia hartuko dut, idatzitakoa astiro irakurri eta irakurketa horrek eragiten dizkidan erreakzioak idatziko ditut.

### Krisiak eta tentazioak

Basamortuko aldia *krisi* (cf. **4. eranskina**), *proba* eta *tentazio* aldia ere bada. Esperientzia ezberdinak izan arren, denetan egoera bera gertatzen da: indar batzuen arteko lehia kontrako norabidean bultzatzen gaituztenak (cf. **8. eranskina**). Orokorrean, tentazioa lotzen dugu erakartzen gaituen eta zerbait txarra egitera eramaten gaituen errealitate batekin. Biblian, aldiz, txarrerako indar eragile horren zentzu modernoak ere badagoen arren, tentazioa batez ere *proba* edo *epaiketa* moduan ulertzen da. Zentzu horretan, norbait tentatzen dela esateak esan nahi du proban jarri dela haren sendotasuna frogatzeko. Lukasen ebanjelioan, adibidez, Jesusek Pedrori esaten dio: “Simon, Simon!

Satanasek beretzat nahi zaituzte, garia galbahean bezala zuek astintzeko. Baina nik otoitz egin dut zure alde, sinesmena gal ez dezazun. Eta zuk, niregana bihurtzean, sendo itzazu senideak” (Lk 22,31-32). Berba horietan barrundatzen da Jesusek berak izan omen duen esperientziatik hitz egiten duela. Segurutzat Jesusen tentaldien gaineko testu laburrak –aurten Garizumako lehenengo igandean irakurriko dugu Mateoren arabera– tentazio esperientzia barru-barruko eta sakon baten adierazpena da, hizkera figuratiboa erabilita, eta Jesusen mesianismoaren benetako zentzuari dagokio, “denean guk bezala probatua, bekatuan izan ezik” (Hb 4,15). Bere haragian bizi izan du Seme izatea erabiltzeko tentazioa, dena uztea eta heriotza dakartzan misioaren kontrako jarrera gainditzeko. Tentazioen kontakizuna

laburpen indartsua eta parabola bat da, Jesusek nola bizi izan zuen eta ikasleei nola azaldu zien *Quid Prodest* esperientzia. Berak ere aukeratu behar izan zuen boterean oinarritutako mesianismoaren erakarpeneren eta Aitari erantzun leial eta konfiantzazkoa ematearen artean, haren Hitzak –kontakizunetan aipatzen duten Idatziko testuetan datorrena– beste norabide batean baitarama.

Jesus ere proban jarri dute eta, hari begira, zuk ere azter ditzakezu zure misiolari bizitzan bizi dituzun tentazioak. Aldatu egingo dira, zein adin daukazu; baina denek bat egiten dute gauza batean: misiolari bokazioa askatasunez eta pozik bizitzen eragozteak. Ariketa honek “izena jartzen” lagunduko dizu.

<b>2. ariketa: Nire tentazioak</b>		
<b>Tentazioak</b>	<b>Jainkoaren Hitzak</b>	<b>Zer ikasten ari naiz?</b>
<i>Deskribatu Sutezia eguneroko bizimoduko bidea hartu zenuenetik izan dituzun hiru tentaziorik, zure ustez, adierazgarriak.</i>	<i>Idatzi Eskritura Santutik argi gehien egiten dizkizuten testuak, tentazio horiei aurre egiteko lagungarri dituzunak.</i>	<i>Idatzi zer ikasten ari zaren proba horiekin: Zer adierazten dute zutaz? Zein dira zure alderdi ahulak? Zein dira zure euskarriak?</i>
1. (Adibidez: etsipena, nire lan pastoralak ez duelako emaitzarik eragiten)		
2.		
3.		

Konstituzioetan gogoratzen da “Espirituak Jesukristo gure Jauna basamortura eraman zuen moduan, deabruak tentatu zezan, gu, haren ikasleok ere askotan tentatuko gaituztela” (CC 53). Nola aurre egin halako probei? Konstituzioetan bertan dago giltza: “Tentazioetan bertan Kristorekin bat eginda egon behar dugu, oraindik ere bera tentatzen baitute gudan”. Horretarako: “Jar ditzagun Jainkoaren armak denok, gure indarrak harrotu gabe, Jainkoarengan itxaropen osoa jarrita, tentazioetan bertan ere leial jokatzeko baitu. Zaindu dezagun, ba, Jaunaren hitzaren arabera eta zeruko Aitari eska diezaiozun ez uzteko tentazioan erortzen”.

Ez ahaztu zure tentazioak, zure krisiak eta zure zauriak non dauden, han beti irekitzen da hazteko bide bat Kristorekin bat eginda bizi bazara. Tentazioa ere ikasbidea izan daiteke zure misiolari bizitzan eta Jesusekin “bat egiteko tokia”.

**Antzaldatzera deituak:**  
**“Zu zara nire seme maitea”**

Guk izan ohi dugun tentaziorik larrienetako bat geure nortasunari dagokio. Zenbat aldiz galdetu diozu zure buruari benetan nor zaren? Bizitzan aldi larri bat igarotzen duzun bakoitzean galdera berdina etortzen zaizkizu: Nor naiz? Merezki al du pobre, garbi eta esanekoa izaten jarraitzea halako baloreak estimatzen ez dituen gizartean? Zer “irabazten” eta “galtzen” dut klareterra izateagatik? Benetan hazten ari al naiz pertsona libre gisa? Aurreko aldi horren gainean gogoeta egiteko aukera izan zenuen norberaren irudiaren gaia erabili genuenean. Fededun gisa, badakigu gure nortasunik sakonena Jainkoaren seme-alaba izatea dela: “CMF izenak seme-alaba eta neba-arreba izatea areagotzen du. Pertsonak garela erakusten digu: Jainko Aitak eta Mariak, gure ama Espirituan, maitatuak; Jainkoaren bizitzan parte hartzerako deituak, (cf. *Has* 1,26), Espirituak sarituak Jesusen seme eta

anai ezaugarriekin: duintasuna, askatasuna, konfiantza, poza, maitasuna, errukia eta elkartasuna” (HAC 35). Baina sarritan, benetan zer garen *igarri* eta *sentitu* beharrea, hura gozatu eta horren arabera bizi beharrea, ez dugu sinesten gure handitasunean. Baliteke batzuetan ez *sentitzea* zoriontsu eta zure sentimendu, jarrera eta jokabideek, benetan zer zaren barik, zarela uste duzuna erakustea. Beste era batera esanda, beharbada “nortasun faltsuen” jabe egin zara eta ez dizute uzten Jainkoaren seme izatearen pozez bizitzen eta, ondorioz, bizitzari konfiantzaz aurre egiten. Hala balitz, ez duzu uste zure buruaz daukazun kontzientzia aldatu behar duzula? Bizitzan izandako heziketa edo prestakuntza erratuarengatik eta esperientzia txarrengatik, beharbada, ez duzu ikasi benetan zarenaren arabera baloratzen.

Orduan baliteke Jesusekin “mendira igo” behar izatea, zure kezka eta ahultasunekin. Bihotza irekitzen baduzu, zure deabruei aurre egiteko beldurrik ez baduzu (gutxiagotasun edo erruduntasun sentimenduak, zauriak, hutsuneak,

etab.) entzungo duzu Aitak zuretzat esaten dituela Jesusentzat esan zituen hitzak: “Zu zara nire seme maitea” (cf Mt 17,5). Sentituko duzu hori dela probetxu egiten dizun benetako hitza, zure nortasuna sendatzen duelako. Beste hitz askok bakarrik balio dute “zuri bizitza hondatzeko” izaera faltsuak agintzen dizkizute eta (besteak baino hobea izatea, etab.). 3. Koadernoan aukera izan zenuen auto-estimua sakonago lantzeko eta, batez ere, Jainkoaren seme edo alaba izateko eta sentitzeko esperientzia. Orduko testu batzuk berrirakurri edo orduan egin zenituen ariketa batzuk begiratu ditzakezu.

“Patris Mei” aldian sakonago itzuliko gara oinarritzko esperientzia horretara.

### 3. ariketa: Nire esaldiak

*Irakurri arretaz ezkerreko zutabeko esaldiak. Geratu isilik apur batean. Utzi zure burura etortzen irudiak, oroitzapenak, oihartzunak. Ondoren, idatzi hitz gutxitan eskumako zutabearen zer aurkitu duzun.*

<p>“Ezinezkoa da osasun psikologikoa, besteek eta berak pertsonaren muina onartu, maitatu eta errespetatzen ez badute”</p> <p>(A. Maslow)</p>	
<p>“Mundu osoa zoriontasunaren bila ibili ondoren, ikusi duzu etxeko atean dagoela”</p> <p>(Afrikako esaera)</p>	
<p>“Gizon batek gehien balio izanda ere, ez du balio handiagorik gizon izatearen balioa baino”</p> <p>(A. Machado)</p>	
<p>“Ahalegindu gauzak ondo egiten, ez perfektu. Ez inoiz erratzeko eskubideari uko egin, bestela gauza berriak ikasteko eta bizitzan aurrera egiteko gaitasuna galduko duzu”</p> <p>(D. Burns)</p>	
<p>“Txarrenak hain gauza onak ditu eta onenak gauza txarrak, burugabea da inor kondenatzea”</p> <p>(Indiarren esaera)</p>	
<p>“Zoritxar asko izan ditut... inoiz gertatu behar izan ez zirenak”</p> <p>(Mark Twain)</p>	
<p>“Gizonarengan miresteko gauza gehiago dago baztertzeko baino”</p> <p>(Albert Camus)</p>	

### Aldaketarako topaketa Jesusekin

Garizumako hirugarren, laugarren eta bosgarren igandetako ebanjelioetan, Jesusen hiru topaldi aurkezten dira, eta hiruretan, bizitza aldatu zien hango pertsoneri: Samariako emakumearekin (*hirugarren igandea*), jaiotzako itsuarekin (*laugarren igandea*), Lazaro hilarekin (*bosgarren igandea*). Haien bitartez, Jesus agertzen da *ur* gisa (“Ni naiz ur bizia”) *argi* gisa (“Ni naiz munduko argia”) eta *bizi* gisa (“Ni naiz

piztuera eta bizitza”). Salbamen-topaketa guztiok, Joanen ebanjelioak “zeinutzat” dakartzanak, *Quid Prodest*-en ikuspegitik ere ulertu daitezke. Izan ere, zertarako balio du putzutik ur materiala lortzea bihotzak egia- eta maitasun-egarriz jarraitzen badu? Zertarako da ikusmen fisikoa berreskuratzea Jesusek egiten dituen zeinuak ikusi eta harengan sinetsi ezin bada? Zertarako da bizitza biologikoa berreskuratzea berriro hil behar bada behin betiko? Jesusek ez du egoera larri bat

sendatzen bakarrik, horrez gainera topatzen dituen pertsonak (samariarra, itsua eta Lazaro laguna) bere misterioan txertatzen ditu. *Ur bizia*, *fedearen argia* eta *betiko bizitza* ematen dizkie.

Hiru asteotan zuk ere Jesusekin bat egiteko aukera izango duzu, zure egarri-, itsutasun- eta heriotza-esperientziak harekin banatzeko. Utzi “lectio divina”ko eguneroko ariketaren bitartez, Jainkoaren Hitza agertzen joan dadila zuretzat *ura*, *argia* eta *bizia* den Jesusi. Ausartu fedearen jauzia egiten. Zure bizitza osoak zentzu berria hartzen duela igarriko dugu, kanpotik itxuraz ezer aldatzen ez bada ere. Ez geratu Jesusi zure premiak aurkeztuta, zure bizitzan premiazkoa dela iritzita ere. Utzi Berari harritzen eta zure gurari edo itxaropenetik harago eramaten.

### “Pazko hirurrena” Kristorekin bizi

Garizumako bidea pazko hirurrenaren ateetan amaitzen da. Nola ospatu nahi zenuke aurten Kristoren nekaldia, heriotza eta bizituera? Aste Santua, Erramu Igandean edo Jaunaren Nekaldiko Igandean hasita, “hirurren santu” edo “pazko hirurrenean” amaitzen da (egun bat hiru egunetan), kristau fedearen muina ospatzen dugunean. Guk autortzen dugu Jesukristo *hila* (Ostiral santua), *hilobiratua* (Larunbat santua) izan zela eta *hirugarren egunean bizitu* zela (Berbizkunde Igandea). Gertaera horiek ez ditugu gogoratzen familiako oroigarri betetako argazki-albuma ikusten den moduan. Izan ere, liturgian, Espirituaren indarrez, haren errealitatea eta salbazio-indarra bizi ditugu.

Ostegun Santu arratsaldean (lehenengo egunaren hasieran) galdetu dezakezu: Zein izan zen Jesusen azken mezua bere lagunentzat, eta haien bitartez, gizateria osoarentzat eta niretzat? Hitz bakar batean laburtuta dago: “Maite” ezazue elkar. Maitatu aditza gure inguruko hizkuntza guztietan dago. Etengabe erabiltzen dugu, baina inoiz ez gaude ziur zer esan nahi duen ondo ulertzen ote dugun. Jesusek ez du denborarik galtzen azalpenak ematen. Soingainekoa erantzi, eskuzapia gerrian lotu eta ikasleei oinak garbitzen hasten da (cf *Jn* 13,1-20). Erreparatu Joanen ebanjelioan nola egiten den sarrera: “Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-betean maitatu zituen” (v. 1). Maitatzeak, beraz, esan nahi du “oinak garbitzea”, norberaren mailatik jaitsi eta oinen parean jarri, hau da, pentsatu daitekeen beherengo mailan. Ez al zaizu iruditzen ikasgai

zoragarria dela zuretzat, eta hori gabe ez zenukeela ondo ulertuko zer den eukaristia? Izan ere, dakizunez, laugarren ebanjelioak ez du eukaristiaren narrazioa egiten sinoptikoen antzean. Haren ordezkizun hau sartzen du, hain zuzen ere “in Coena Domini” mezan irakurtzen duguna. Oinak garbitzea ezinezkoa da borondate ona edo gar altruista baino ez daukanarentzat. Jesusek badaki hori. Horregatik ekarri nahi gaitu bere dinamikara, norbera emateko dinamikara. Eukaristia bihurtzen da eta ogi eta ardotan ematen zaigu. Ogi eta ardoaren bitartez berarekin komunioan jarriz gero, “oinak garbitzeko” eta “bizitza emateko” bokazioan parte hartzen dugu. Eukaristiarik gabe ez dago emate iraunkorrik. Eta eukaristia egoteko zerbitzari batzuk behar dira “Jesusen izenean” hura banatzeko agindua onar dezaten, Haren memoria egiteko. Pentsatu zein harreman estua dagoen maitasun testamentuaren, eukaristiaren sakramentuaren eta elizako ministerioaren zentzuaren artean. Apaiza bazara, gaur da hartutako bokazioagatik eskerrak emateko eguna, haren sakrifizio zentzua hobeto ulertzeko (ez zara zerbitzari kualifikatu bat bakarrik, zure bizitza osoa dago Kristoren sakrifiziara jarrita) eta munduko apaiz guztien alde eskatzeko.

Joanen ebanjelioan, *Ostiral Santu* egunean (hirurreneko lehenengo egunean) handik irakurtzen baita nekaldiaren kontakizuna, Jesusen heriotza garaipena da. Gurutzea aldi berean da urkamendia eta tronua. Eta handik ematen dio gizateria osoari bere Espirituaren berri (cf. *Jn* 19,30). Jesusen gurutzearen ondoan daude Maria eta Jesusek maite zuren ikaslea (cf. *Jn* 19,25-27).

Isilik Jesusen gurutzeari begiratuta, errazago bereiziko duzu nola bizi duzun zeure bizitza, benetan eragiten dizuna “mundua irabaztea” edo “ebanjelioa bizitzea” ote den. Hobeto ulertuko duzu zure proben eta tentazioen esanahia. Elkartasun handia sentituko duzu munduan sufritzen duten guztiekin, batez ere inorekin mina banatu ezin dutenekin. Zure bekatuaren amildegira jaitsiko zara eta inoiz ez bezala sentituko duzu zure eskergabetasuna. Azkenik, heriotzari zentzu bat bilatzeko grazia izango duzu, zureari eta gehien maite dituzunenari (cf. **5. eta 6. eranskinak**). Eta igarriko duzu gurutze guztietan dagoela Ama (“*stabat mater iuxta crucem*”). Hark Jesusen ondoan geratzen laguntzen dizu, bere sufrimenduak sentitzen haren loria ere banatu ahal izateko (cf. *Filip* 3,10).



*Larunbat Santua* (hirurreneko bigarren eguna) “ez-egun” bat da, hogeita lau ordu irautes duen gaua, egun “ez liturgikoa”. Eliza Jesus lurperatuaren gorpuaren ondoan beilan dago. Kristo gaur galduta dago: ez dakigu “non jarri duten”. (Jn 20,13). Gaur Jesusengan duten fediaz galdetxean zer erantzun ez dakiteneen eguna da. Kristo gunetzat eduki eta gaur non ezkutatu ez dakiten kulturen eguna da. Batzuetan “Bera biziko ez balitz moduan” bizi garenon eguna da gaur. Azken batean, fediaz galdetu ez eta axolagabekeria kokatuta daudeneen eguna da.

Baina itxaropen handiko eguna ere bada, Mariaren eguna. Mariarekin “badakigu” zerbait handia gertatzeko dagoela. Zalantzaren gauari fedearen goizaldeak irabaziko dio. Jainkoaren lanaren zain gaude ezer egin ezin dugun une honetan.

*Pazko-bigiliarekin* hasten da Pazko Igandea (hirugarren eguna). Aginduak bete egin dira. Merezi izan du Beragan sinesteak. Haren heriotzan parte hartzen badugu ez dugu bizitza galtzen, betiko irabazi baino. Gure *Quid Prodest* garaipenarekin amaitu da.

#### 4. ariketa: Nire pertsonaiak Jesusen Nekaldi, Heriotza eta Piztueran

*Ezkerreko zutabearen aurkituko dituzu Jesusen nekaldi, heriotza eta piztuerako kontakizunean agertzen diren zazpi pertsonaia esanguratsu, beti ere Joanen ebanjelioari jarraituta. Hasteko, irakurri azpian aipatzen diren testuak. Utzi pertsonaia bakoitza zure barrura sartzen eta hitz egiten. Gero, eskumako zutabearen, idatzi zer daukazun zuk haietako bakoitzetik, nola adierazten dituzten zure sentimendu eta jarrera Jesusekiko. Bakoitzetik apur bat edukita ere, zein pertsonaiarekin identifikatzen zara gehiago? Zergatik?*

<b>JUDAS</b> (Cf. Jn 18,3-9)	
<b>PEDRO</b> (Cf. Jn 18,10-11; 15-18; 25-27; 20,1-9)	
<b>PILATO</b> (Cf. Jn 18,28-40; 19,1-16)	
<b>MARIA, AMA</b> (Cf. Jn 19,25-27)	
<b>IKASLE MAITATUTA</b> (Cf. Jn 19,25-27; 20,1-9)	
<b>JOSE ARIMATEAKOA</b> (Cf. Jn 19,38-42)	
<b>MARIA MAGDALENA</b> (Cf. Jn 20,10-18)	
<b>TOMAS</b> (Cf. Jn 20,24-29)	

### 5. ariketa: Nire argazkiak

Begiratu arretaz ondoko argazkiei. Utzi irudiei zuri "hitz egiten". Gero idatzi otoitz bat ondoko laukian.

(Jesusen argazkiak oinak garbitzen)	
-------------------------------------	--

(Jesusen argazkia gurutzean)	
------------------------------	--

(Jesusen argazkia etzanda)	
----------------------------	--

(Jesusen argazkia biztuta)	
----------------------------	--

### 3. Laguntza *lectio divina* eta bakarkako otoitzerako

Garizuma aukera aproposa da fedean hazteko (cf. **1. eranskina**), baina beti ez da erraza gure ibilbide pertsonala eta elkartearena Elizak proposatzen digun liturgiako ibilbidearekin bat egitea. 2011ko Garizumako ibilbidearen guneak gogoratzen hasi zaitezke. Gero ideia batzuk aurkituko dituzu "lectio divina"ko eguneroko ariketetarako.

Dakizunez, Garizumak gogora dakartza Jesusek basamortuan egindako berrogei egunak, baina baita Moisesek Sinain egindakoak, herriaren berrogei urteak basamortuan, Eliasen berrogei egunak Jezabelengandik ihesean, etab.

Beraz, ibiltzeko aldia da. Gure kasuan, bidearen helmuga Pazkoa da.

Bide horretan aurrera egiteko Elizak proposatzen dituen bitartekoak hiru dira gehien bat:

- Gure buruarekin zerikusia duena, **BARAUA** (adizioetatik askatzeko).
- Besteekin zerikusia duena, **LIMOSNA** (prest egoteko).
- Jainkoarekin zerikusia duena, **OTOITZA** (haren graziari irekitzeko).

Garizuma Hausterre egunean hasten da. Hautsa ezartzeko erritoan esaten diren hitzek laburtzen dute aldi sendo horretako programa: "Konbertitu eta sinetsi ebanjelioan". *Quid Prodest* kolore handia dauka, gure bizitza zalantzan jartzeko eta fede-bidea egiteko konbitea delako. Aurten A zikloan gaude. Horrek esan nahi du

lehenengo asteetan protagonismoa duela San Mateoren ebanjelioak. Hurrengo hiruretan, Joanenak. Prestatzeko egunetako irekieraren ostean, Aste Santuaren aurreko bost asteak etapatan zatitutako bide moduan ikusi daitezke, mugarriak bost igandeetako ebanjelioetan berariaz adierazita daudela:

I. IGANDEA	II. IGANDEA	III. IGANDEA	IV. IGANDEA	V. IGANDEA
<i>Mt 4,1-11</i>	<i>Mt 17-19</i>	<i>Jn 4,5-42</i>	<i>Jn 9,1-41</i>	<i>Jn 11-1-45</i>
• Basamortua	• Mendia	• Jakoben putzua	• Siloeko igerilekua	• Betania
• Tentazioa	• Igoera	• Egarria	• Itsutasuna	• Heriotza
• Mesias	• Seme maitatua	• Ur bizia	• Munduko argia	• Betiko bizitza

### Eguneroko "lectio divina" rako ideiak

<b>Asteazkena martxoak 9</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 55,10-11</li> <li>• Mt 6,7-15</li> </ul>	<b>Hausterre</b>	Garizumako ibilbidea hasi da. Jesusek gogoratzen dizu otoitz egin, barau egin eta limosna eman behar dela. Bera beti doa zuk pentsatu edo asmatu dezakezuna baino "harago". Kontua ez da agertzea, izatea baino.
<b>Osteguna martxoak 10</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dt 30,15-20</li> <li>• Lk 9,22-25</li> </ul>		Gaur jarri aparteko arreta Garizumako aldi hau hasi denetik lagun izan dituzun hitzei: <i>Zertarako du gizakiak mundu osoa irabaztea bera galtzen bada?</i> Ezten baten modukoak dira, balio duenaren eta alboratzen zaituenaren artean, beharrezkoaren eta azalekoaren artean aukeratzera behartzen zaituzte.
<b>Ostirala martxoak 11</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 58,1-9a</li> <li>• Mt 9,14-15</li> </ul>		Isaiasen testuak Jainkoarengana hurbiltzen gaituen baraua deskribatzen du. Fede ahuleko uneetarako ibilbide modukoa da: "Elkartasun gehiago eta erritu huts gutxiago". Bila ari garen argia agertzen da gure ogia gose denarekin banatzen dugunean, etxerik gabea etxean hartzen dugunean, biluzik dagoena janzten dugunean.
<b>Larunbata martxoak 12</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 58,9b-14</li> <li>• Lk 5,27-32</li> </ul>		Gaur egun nahiko erraz onartzen dugu ahulak, hauskorak garela, erratu egiten garela, bizitza gogorra dela. Gutxitan esaten dugu benetan bekataririk garela. Ez dugu tarterik uzten sendatu nahi gaituen Jesusentzat. Aitzakiak bilatzeko joerarekin dena betetzen dugu.
<b>Igandea martxoak 13</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 2,7-9; 3,1-7</li> <li>• Rm 5,12-19</li> <li>• Mt 4,1-11</li> </ul>	<b>Garizumako lehenengo igandea</b>	Gaizkilearen tentazioek bizitzan daukagun misioa betetzea eragotzi nahi digu. Aurre egin behar diogu Jesusek bere tentazioei aurre egin zien bezala: basamortura eramaten utziz, Jainkoaren Hitzetik datorren egiari irekiz eta barau eginez, beti besteei errua botatzeko arrazioak aurkitzen dituen bizimodutik.
<b>Astelehena martxoak 14</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lb 19,1-2.11-18</li> <li>• Mt 25,31-46</li> </ul>		Jesus ez dabil aiko-maikotan: gose denari jaten ematen dionak (edo edaten egarri denari) egin du egin beharrekoa. Maitatzea legea osorik betetzea da. Azalpen gehiegizkoek gunetik aldendu egiten gaituzte.
<b>Asteartea martxoak 15</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 55,10-11</li> <li>• Mt 6,7-15</li> </ul>		Jesusen otoitzak sendatu egiten du gure antsietatea, aldaketen iturriarekin (Aitarekin) lotzen gaitu, gure motibazioak garbitzen ditu, oinarrizkoa eskatzen du, moralki indartu egiten gaitu konpromiso apal eta iraunkorrerako. Aldaketa egingarri eta isileko otoitza da.
<b>Asteazkena martxoak 16</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jo 3,1-10</li> <li>• Lk 11,29-32</li> </ul>	<b>San Jose Kongregazioaren patroien hirurrena hasi, (Egutegia, 85-89 or.)</b>	Jesus bera da beti harrizten gaituen "zeinua". Bera Jonas eta Salomon baino gehiago da. Jesus aitzindari, erlijio-gidari eta "salbazio-keinu" artea, Jesusek "beste bat gehiago" bihurtzeko joerak ez digu utziko igartzen haren deia beste era batera bizitzeko. Garizumak apurka-apurka "beste bat gehiago" hori "beste bat gutxiago" egiten den horren misterioan sartuko gaitu.

<b>Osteguna martxoak 17</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Est 4,1-17</li> <li>• Mt 7,7-12</li> </ul>		Premia daukanak baino ez du <i>eskatzen</i> . Ez dela azkenera heldu dakianak baino ez du <i>bilatzen</i> . Beragandik harago dagoen norbaitekin fidatzen denak baino ez du <i>deitzen</i> . Fedea barruko esperientzia argi baten moduan bizi daiteke, baina, sarritan, <i>eskaritzat</i> bizi dugu: “Jauna, ikus dezadala”, “Jauna, handitu nire fedea”.
<b>Ostirala martxoak 18</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 18,21-28</li> <li>• Mt 5,20-26</li> </ul>		Injustizia guztien gaineko benetako garaipena ez da egindako gaitzaz damutzea bakarrik, egin duenaren “bizitza berria” baino. Egindako gaitzaren eta hartutako onaren arteko gorabehera hori da “gehiago” profetikoa, giza justiziak inoiz ulertu ezin izango duena, eta are gutxiago ziurtatu.
<b>Larunbata martxoak 19</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 Sm 7,4-16</li> <li>• Rm 4,13-22</li> <li>• Mt 1,16-24</li> </ul>	<b>San Jose, Ama Birjinaren senarraren eta Kongregazioko patroiairen jai</b>	Jose Nazaretokoak fedea bizitzeko modua erakutsi behar liguke. Haren irudiaren alderdi guztietatik, aurtan, ebanjelioaren harira, bat azpimarratu daiteke: Jose Jesusen “bilatzaile etsia” da. Mariarekin batera bilatzen du, lehenago galdu egin duelako, edo, gutxienez, ez delako konturatuko Jesus Jerusalem geratu dela.
<b>Igandea martxoak 20</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 12,1-4</li> <li>• 2 Tm 1,8b-10</li> <li>• Mt 17,1-9</li> </ul>	<b>Garizumako II igandea</b>	Jesusekin batera goaz mendian gora, gure ahultasun, zauri, ardura eta beldurren zama aldean hartuta. Haren aurpegia antzaldatuta ikustean, sentitzen dugu benetako aldaketak Jainkoak maite gaituela jakiteak eraginda datozela. Orduan baino ezingo gara eguneroko bizimoduko haranera jaitsi eta itxaropenez probei aurre egin.
<b>Astelehena martxoak 21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dn 9,4b-10</li> <li>• Lk 6,36-38</li> </ul>		Barkatzeak esan nahi du gizakiok berriro hasteko daukagun gaitasunean sinesten dugula. Barkamena ez da armak uztea bizitza eroangarri egiteko, Jainkoak gudan egiten duen sorkuntza berria baino.
<b>Asteartea martxoak 22</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 1,10.16-20</li> <li>• Mt 23,1-12</li> </ul>		Jesusek gizakion ahuldade guztiak ulertzen ditu ahultasunaren putzura jaitsi delako. Ez du onartzen hipokresia. Zertarako da ondo geratzea horretarako benetan garenari uko egin behar badiogu?
<b>Asteazkena martxoak 23</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 18,18-20</li> <li>• Mt 20,17-28</li> </ul>		Mundua irabazteak esan nahi du “nazio buruak” bezalakoak izatea: boterea, ospea eta dirua bilatzea. Ez gara misiolari egin horretarako. Guretzat bizitza zerbitzatzea da.
<b>Osteguna martxoak 24</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 17,5-10</li> <li>• Lk 16,19-31</li> </ul>		Ez dago ezer apartekorik bilatu beharrik gure bizitzako norabidea aldatzeko. Behar dugun guztia hartu dugu: Hitz, Eukaristia, elkarte...
<b>Ostirala martxoak 25</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 7,10-14</li> <li>• Heb 10,4-10</li> <li>• Lk 1,26-38</li> </ul>	<b>Jainkoaren deikundearen ospakizuna</b>	Gure bokazioa –Mariarena bezala– agindu baten (“Espiritu Santua zugana etorriko da”) eta erantzun baten (“Hona Jaunaren zerbitzaria”) artean konpontzen da. Beste erantzun asko ere eman daitezke (“Ikusiko dugu”, “Pentsatuko dut”, “Ez dut nahi”), baina ez dute laguntzen benetako bizitza irabazteko.
<b>Larunbata martxoak 26</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mi 7,14-20</li> <li>• Lk 15,1-3.11-32</li> </ul>		Jesusen ipuin honen ostean, oraindik ere bizitza garrazten digun Jainkoarekin bizi ote gaitzke? Bere burua ez fededuntzat daukaten askok, ez al daude halako Jainko baten irrikaz? Ez al lirateke dardarka hasiko Jainkoak, ezer ez leporatzeaz gainera, arin-arin hurbildu, besarkatu eta musuka jaten dituela ikusita?
<b>Igandea martxoak 27</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ir 17,3-7</li> <li>• Rm 5,1-8</li> <li>• Jn 4,5-42</li> </ul>	<b>Garizumako III igandea</b>	Samariako emakumearen hitzak geure egingo ditugu: “Emadazu ur horretatik inoiz ez dezadan egaririk izan”. Jesusekin bat egiten duenak bizitza dauka. Ez du “mundua irabazi” behar zoriontsu izateko.
<b>Astelehena martxoak 28</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 Erg 5,1-15</li> <li>• Lk 4,24-30</li> </ul>		Jesusek dakarren Jainkoaren salbazioa berarekin fidatzen den edonori irekita dago. Oinarrizkoa ez da bere erkidea izatea (Nazaretoko biztanleen moduan) fede jarrera erakustea baino (Sareptako alargun atzerritarraren edo Naamango siriarraren moduan).
<b>Asteartea martxoak 29</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dn 3,25-43</li> <li>• Mt 18,21-35</li> </ul>		Barkamenaren esperientzia sakon batek baino ezin ditu sendatu gure zauriak eta besteei barkatzeko prestatu. Baina barkamena ezin da ezarri. Apaltasunez eskatu eta hartzen da.

<b>Asteazkena martxoak 30</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dt 4,1-9</li> <li>• Mt 5,17-19</li> </ul>		“Hamar aginduak” bizitzako bideak dira. Jainkoa gauza guztien gainerik maitatzea, haren izena goratzea, jaiak santu egitea, gurasoak ondratzea, bizitzaren alde egitea, gure sexualitatea duintasunez erabiltzea, gauzak errespetatzea, egia esatea, etab. ez dira gure askatasunerako trabak, askatasun hori sakoneraino ziurtatzeko modurik onena baino.
<b>Osteguna martxoak 31</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 7,23-28</li> <li>• Lk 11,14-23</li> </ul>		Biblian zergatik dauka hainbeste garrantzia “entzun” aditzak? Zenbat aldiz esaten da “Shemá Israel” (Entzun Israel) esaera? Entzuteak esan nahi du Jainkoaren hitzari arreta jartzea, gure barruan sartzen uztea, erdi-erdian jartzea. Garizuma ez ote da berez entzutek arreta jartzera aldatzeko aldia? Gaurko salmoa Jeremiasen iragarpenaren oihartzunaren antzekoa da: <i>Gaur entzungo al duzue Jaunaren ahotsa. Ez gogortu bihotza.</i>
<b>Ostirala apirilak 1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Os 14,2-10</li> <li>• Mk 12,28b-34</li> </ul>		Jesusek lotura apurtezina ezartzen du lehenengo aginduaren (Jainkoa maitatzeari dagokiona) eta bigarrenaren artean (hurkoa maitatzeari dagokiona): <i>Ez dago “horiek” baino agindu handiagorik.</i> Jainkoak lotu duena ez dezala gizakiak eten.
<b>Larunbata apirilak 2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Os 6,1-6</li> <li>• Lk 18,9-14</li> </ul>		Lukasek ematen duen fariseuaren eta zergalariaren parabolak Jainkoaren aurrean jartzeko bi modu aurkezten ditu: handikeriaren modua (fariseua) eta modu apala (zergalaria). Jesusen irakatsia argia da: <i>Burua goratzen duena apaldua izango da, burua apaltzen duena goratua izango da.</i> “Mundua irabazi” nahi izateak fariseu txarrei dagokie.
<b>Igandea apirilak 3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Sam 16,1-13</li> <li>• Ef 5,8-14</li> <li>• Jn 9,1-41</li> </ul>	<b>Garizumako IV Igandea</b>	Jaiotzako itsua sendatzea “zeinu” bat da gizonaren semearengan sinesteko, gure buruaren egiaren aurrez aurre jartzen gaituena. Ikusten dugula uste dugu, benetan ikusten ez dugunean?
<b>Astelehena apirilak 4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 66,17-21</li> <li>• Jn 4,43-54</li> </ul>		Ez dago Jesusen gainean asko jakin beharrik beragan sinesteko. Nahikoa da fidatzea. Jesusek semea sendatu zion funtzionarioak “Jesusengan sinetsi zuen eta bidean jarri zen”. Jesusen balioa neurtzen jakin zuen.
<b>Asteartea apirilak 5</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 47,1-9.12</li> <li>• Jn 5,1-3a-5-16</li> </ul>		Jesusek ere elbarri sendatuari ibiltzeko esaten dio. Bidean jartzea Jesusek irekitzen duen bizitza berriaren erakusgarria da. Horren aurretik, Jesusen galdera guri egiten zaigula sentitu behar dugu: Sendatu nahi duzu?
<b>Asteazkena apirilak 6</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 49,8-15</li> <li>• Jn 5,17-30</li> </ul>	<b>San Joan Bataiatzaile Sallekoaren memoria</b>	Gure bizitza hondatu dezakegu “munduko” balioek eramaten uzten dugunean. Baina irabazi egin dezakegu Jesusen hitza onartzen dugunean: “Nire hitza entzuten duenak eta bidali nauenarengan sinesten duenak betiko bizitza dauka”.
<b>Osteguna apirilak 7</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ir 32,7-14</li> <li>• Jn 5,31-47</li> </ul>		Eguneroko “lectio”aren bitartez, guk ere arakatzen dugu Idatzia bizitza aurkitzeko bertan. Baina ezer ezear geratu daiteke Jesusengandik, Bizitik, askatzen badugu.
<b>Ostirala apirilak 8</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jkd 2,1a.12-22</li> <li>• Jn 7,1-2.10.25-30</li> </ul>		Jesusek ez du bere bizitza hainbeste baloratzen heriotzaren beldur izateko. Ezertarako ez dizu balio segurtasuna bilatzea. Arriskatu azkeneraino.
<b>Larunbata apirilak 9</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 11,18-20</li> <li>• Jn 7,40-53</li> </ul>		Inork ez du Jesusen moduan hitz egiten. Inork ezin du Berak bezala bizitza eman. Aurkitzeko esperientzia bizi izan dugunean, munduko erakarpenak distirarik gabe geratzen dira. Benetako bizitzak tentazio guztiei irabazten die.
<b>Igandea apirilak 10</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 37,12-14</li> <li>• Rm 8,8-11</li> <li>• Jn 11,1-45</li> </ul>	<b>Garizumako V Igandea</b>	Azken muga bizitzaren eta heriotzaren artean dagoena da. Lazaroren piztuera “zeinu” bat da Jesusek muga igarotzen duela adierazteko, bizitzaren eta heriotzaren Jauna delako: “niregan sinesten duena, hilda ere, biziko da”.
<b>Astelehena apirilak 11</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dn 13,14-62</li> <li>• Jn 8,1-11</li> </ul>	<b>San Estanislao gotzain eta martiriaren memoria</b>	Gure ahultasunetan Jesusek ez gaituela zigortzen igartzea da bideari berriro ekiteko eta “berriro bekaturik ez egiteko” indarra ematen diguna. Eta baita besteei errukiz begiratzeko ere.

<b>Asteartea</b> apirilak 12	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zen 21,4-9</li> <li>• Jn 8,21-30</li> </ul>		Noiz ulertuko dugu Jesusek guretzat zer esan nahi duen? Noiz sinetsiko dugu bere burua heriotzara arte ematearen zentzua? Laugarren ebanjelioaren azpian dagoen teologiarentzat ez dago zalantzarik: <i>Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan konturatuko zarete naizena naizela ni.</i>
<b>Asteazkena</b> apirilak 13	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dn 3,14-95</li> <li>• Jn 8,31-42</li> </ul>		Libre egiten gaituena ez da egia, balio abstraktutzat ulertuta, baizik eta Jesus bera den egia: <i>Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Quid Prodest</i> bizitza aske baterako atea irekitzen dizkigun esperientzia da, inongo esklabotzari lotu gabea.
<b>Osteguna</b> apirilak 14	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 17,3-9</li> <li>• Jn 8,51-59</li> </ul>		Nor da benetan Jesus? Abrahamen erreferentzia baliabide bat da agindu-errealitatea kontrastea agerian jartzeko. Bertan hitzarmena gorengo mailara heldu da: herri ugaria sortu da eta lurrian bizi da haren jabe izanik.
<b>Ostirala</b> apirilak 15	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 20,10-13</li> <li>• Jn 10,31-42</li> </ul>		Jesus ez dago gure esku. Doako dohaina da, baina ez nahi dugun erara erabili dezakegun norbait. Jesusek erakarri egiten du. Ez du horrenbeste pozik eragiten <i>Jainko egiten zara</i> deseroso horrek. Izan ere, baieztapen hori egia izanez gero, orduan Jesus ezin da edozein aitzindari izan, baizik eta nirekin eta nik berarekin zerikusia duen Norbait, nire neure egia eta nire bizitzari ematen diodan erantzunaren aurrez aurre jartzen nauen Norbait.
<b>Larunbata</b> apirilak 16	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 37,21-28</li> <li>• Jn 11,45-57</li> </ul>		Jesusen heriotzak berak Aitari aurkeztutako ametsa beteko du: <i>Denak bat izan daitezela.</i> Ez al dago gure misiolari bokazioaren barruan, Jesusen moduan, borroka egitea <i>Jainkoaren seme sakabanatuak batzea?</i>
<b>Igandea</b> apirilak 17	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 50,4-7</li> <li>• Flp 2,6-11</li> <li>• Mt 26,14 – 27,66</li> </ul>	<b>Erramu Igandea</b>	Nekaldian Jesusek <i>Quid Prodest</i> -ik muturrekoena bizi du: munduko segurtasunari uko egiten dio bere bizitza ematearena azken ondorioetaraino bizitzeko. Eta horregatik irabazten du borroka.
<b>Astelehena</b> apirilak 18	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 42,1-7</li> <li>• Jn 12,1-11</li> </ul>	<b>Astelehen Santua</b>	Astelehen Santu honetako ebanjelioak afari bat aurkeztu digu, azken afariaren aurrekari antzera. Hor elkartzten dira <i>lagunak</i> (Marta, Maria, Lazaro) eta <i>saltzaileak</i> (Judas Iskariote). Afari horretan agerian jartzen dira Jesusen aurrean hartzen diren oinarritzko jarrera biak, bere prozesuaren eta heriotzaren dramagan agertuko direnak: maitasunaren <i>hurbiltasuna</i> eta gorrotoaren <i>urruntasuna</i> .
<b>Asteartea</b> apirilak 19	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 49,1-6</li> <li>• Jn 13,21-23</li> </ul>	<b>Astearte Santua</b>  <i>* Esteban Sala aita, sortzaileetako eta ordenako lehenengo burua (Egutegia, 93-100)</i>	Ebanjelioko kontakizunetik gehien harritzen nauena da saldukeria lagunik minenen artean sortzen dela, Maisuaren bihotzera heldu ahal izan direnen artean: <i>Bene-benetan diotsuet: Zuetako batek salduko nau.</i> "Saldukeria" hitza oso gogorra da. Ordezko hitz leungarriak bilatu ditugu, adibidez, ahultasuna, errakuntza, aldea, etab. Saldukeriaz hitz egiteak dakar maitasun eta leialtasun harreman zapuztu bat aipatzea. Maite dena baino ez da saltzen. Jesus saltzen ari ote gara gu, hura maite nahi izan arren? Eta hala balitz, zertarako balio digu? Zertarako balio dute "zilarrezko hogeita hamar txanponek"?
<b>Asteazkena</b> apirilak 20	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 50,4-9</li> <li>• Mt 26,14-25</li> </ul>	<b>Asteazken santua</b>	Aurpegia dugu zer garen adierazteko leihoa. Aurpegia gure nortasunaren adierazpena bada, zer indar hartzen dute Isaias profetaren hitz hauek: <i>Ez nien aurpegia ezkutatu irain eta listuari!</i> Edo 68 salmokoak: <i>Lotsak estali zidan aurpegia.</i> Hurrengo egunetan Jesusen aurpegiari erreparatuko diogu. Gizaki guztion pozaldi eta sufrimendu guztiak jasotzen dituen mapa baten antzekoa da: <i>Zure aurpegia bilatuko dut, Jauna, ez aurpegia ezkutatu.</i>

<b>Osteguna</b> <b>apirilak 21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ir 12,1-8.11-14</li> <li>• 1 Ko 11,23-26</li> <li>• Jn 13, 1-15)</li> </ul>	<b>Ostegun santua</b>	Ogia banatzea eta ontzi beretik edatea zeinu oso adierazgarriak ziren Jesusen garaian. Halakoen bitartez komunio estua sortzen zen besteekin eta naturarekin. Ogia eta ardoa, <i>lurraren eta gizakien lanaren emaitza</i> , elikagai bihurtzen dira aldaketa prozesu baten ostean. Gariak eta mahatsak hil egin behar dute ogi zuria eta ardo gorria sortu daitezen. Jesusek bere ikasleei dohain horiek eman orduan, bere amaiera aurreratzen ari da, eta, aldi berean, bizitzako programa bat eskaintzen: “Zuek besteentzat elikagaia izan zaitezke ehoak (garauak bezala) edo txikituak (galburuak bezala) izatea onartzen baduzue”.
<b>Ostirala</b> <b>apirilak 22</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 52,13-53</li> <li>• Jn 18,1-19.42</li> </ul>	<b>Ostiral santua</b>	Jesusen heriotzaren aurrean hitzaldi guztiak isiltzen dira. Begiek begiratu egiten dute eta bihotzak babesa eman. Gurutzean Jesus galtzaile ageri da, eta “mundua” garaile, baina “bizitzaren” hazia erein du, eta ez da gehiago galduko. Bizitza galtzean betiko irabazi du.
<b>Larunbata</b> <b>apirilak 23</b>		<b>Larunbat santua</b>	Gaur ez dugu ezer esango. Ez dugu ezer ospatzen. Isilak gainezka gauzka. Gutariko batzuek heriotzaren gauari begiratzen diote. Besteek igartzen dute apurka-apurka goizaldea datorrena. Gure bizitza osoa da larunbat santua. Gure heriotzaren aurrendari egiten duten heriotza guztien oroitzapena bizi dugu. Gure pizkundera iragartzen duten udaberri guztiek deitzen digute.
<b>Igandea</b> <b>apirilak 24</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 1,1.26-31</li> <li>• Ir 14,15-15,1</li> <li>• Is 55,1-11</li> <li>• Rm 6,3-11</li> <li>• Mt 28,1-10</li> </ul>	<b>Pazko igandea</b>	Argia, ura eta bizia (Eukaristiako ogia eta ardoa) laguntzen izan ditugu Garizumako bigarren aldiaren Jesusen misterioaren ikur gisa. Horiek denek indar adierazgarri handia hartzen dute gaur gauean. Azkenean argiak iluntasuna gaintzen du, urak zikin guztia garbitzen eta egarri guztia kentzen du, eta Eukaristiako ogiak betiko bizitzarako elikatzen gaitu.

#### 4. Elkarte-dinamikarako laguntza aldi honetan

- Aldi honetako lana ikuspegi berriekin aberasteko, uneren batean elkarrekin ikus daiteke *Gran Torino* filma eta gero elkarrizketa egin, filma koaderno honetako eduki nagusiekin lotzeko. Interpretazio bat baino gehiagorako bidea ematen badu ere, gure kasuan filma kristau parabola baten moduan begiratu daiteke, bizitza osoa emate moduan, beste batzuk duintasunez eta askatasunez bizi daitezten (Kristo “pazko hirurrenean bezala”). Protagonistaren amaieraren aurretik konbertsio eta berradiskidetze bidea egiten du (eguneroko bizimoduko Garizuma). Beste gai batzuk ere garatu daitezke: kultura ezberdinen arteko elkarbizitza, hiriko bazterketa mundua, “pertsona zailen” pastoralara, etab.



Walt Kowalski (Clint Eastwood), autogintzan ibilitako langile erretiratu da. Orain etxean konponketa batzuk egiten, garagardoa edaten eta hilean behin ile-apaintzailearengana joaten ematen du denbora. Bere emazte ohiaren azken guraria hura aitortzera joatea bazen ere, Waltentzat ez dago ezer aitortzekorik. Koreako Gerrako beterano erresumindu bat da, M-1 erriflea garbi eta prest zaintzen du. Berak auzokotzat zituenak joan edo hil egin dira, eta haien ordez *hmong* immigranteak ditu bizilagun, Asia hego-ekialdekoak, eta berak gorroto ditu. Haserre dago ikusten duen ia guztiarengatik: teilatu-hegalak jausita, belarra zaindu gabe eta inguruan dituen aurpegi ezezagunak; gazte talde *hmong*, latino eta afroamerikarrak, inolako helbururik gabe, auzoa haiena dela uste dutenak; bere seme-alaba heldugabe ezezagun bihurtuak; Walt bere azken orduaren zain dago. Norbaitek bere 72ko Gran Torino lapurtzeko saioa egiten duen arte.

- Beste film batzuk ere aproposak dira: *La leyenda del santo bebedor*, *Pena de muerte*, *Katyn*. Aldi egokia da Jesusen bizitza, heriotza eta piztuera erabili duten azken filmak ikusteko: *Jesus* (Roger Young, 1999), *The Gospel of John* (Philip Saville, 2003), *The passion of Christ* (Mel Gibson, 2004), *L'inchiesta* (Giulio Base, 2006), *The Passion* (Michael Offer, 2007). Edozein kasutan, komenigarria litzateke elkarrizketa prestatzea ohar zinematografiko hutsa ez izateko, eta bakoitzak aldi honetan bizi duenarekin lotzeko.

#### ELKARTEAREN BATZARRA

1. Batzarra Aste Santu aurretxoan edo Aste Santuan bertan eginez gero, 87 Salmoa elkarrekin irakurritz hasi daiteke. Gurutze apaindu bat jarri daiteke batzarraren buruan.
  2. Aurreko aldietan bezala, elkarteko kide bakoitzak fase honetan zehar izandako esperientziako **alderdi esanguratsuak** trukatu daitezke. Garrantzitsuena da bakoitzaren lekukotasunari tokia egitea da, adi entzuteak daukan indarrean sinestea. 4 zenbakiko ariketarekin hasi daiteke.
  3. Elkarte elkarte bezala bide bat egiten ari denez, komenigarria izan daiteke galdera hau egitea: **Zer bizitzen ari gara elkarte gisa elkarrekin hil hauetan egiten ari garen esperientzia honetan?**
  4. "Pazko hirurreneko" liturgia-ospakizunak gehiago nabarmentzeko ez da aparteko ospakizunik proposatzen. Hala ere, aldi honetan prestatu daiteke **penitentzia ospakizun bat**, Jainkoaren herriarekin batera ahal dela.
- Elkarreak Garizumako aldi honetarako pentsa ditzake beste aukera batzuk ere, adibidez *probaren bat bizi duten pertsonak ikustea* (gaixoak, presoak, etab.) edo elkarrekin pazko-bijilian *bataioa hartzeko prestatzen ari diren helduekin*. Garrantzitsua da giza esperientzia biziak dituen pertsonen "ukitzen" uztea.

## 5. Etapako ebaluazioa

(Galdera hauek balio dute laguntzaile pertsonalarekin elkarrizketa prestatzeko ere)

### 1. Zure buruari dagokionez:

- Zer aurkitu dut *neure buruaz* bidearen laugarren zati honetan? Ondo bereizi ditut oraintsuko *tentazioak*? Nola egiten diet aurre?
- Nola bizi izan dut nire harremana *Jesusekin*, ura, argia eta bizia den *Jesusekin*? Aldi honetan *Idatziko* testuren batek oihartzun berezirik egin dit? Zeinek? Zergatik?
- Nola bizi nahi nuke aurten *Aste Santua*?
- Nigan *neke-zantzurik* igartzen dut edo zintzo jarraitzen dut eguneroko *otoitz eta ariketa erritmoa*? Zer behar dut adiago eta aktiboago eusteko?

### 2. Elkarteari dagokionez:

- Igarri dut *aurrerapenik nire elkarteko bizitzan* "Sutegia eguneroko bizimodu" bidea hasi nuenetik"? Zein?
- *Nire elkarteari* bide hau sakon bizitzen *laguntzeko* zerbait gehiago egin dezakedala uste dut? Zer?



### 1. Garizumarako katekesia (Benedikto XVI.a)

*Bihotzberritu eta Ebanjelioan sinetsi* ez da kristau bizitzaren hasierarako bakarrik, lagun du bere pauso guztietan, hor dago beti berritzen eta hedatu egiten da esperientzia guztietan sakabanatuta. Egun bakoitza da graziarako une egokia, egun bakoitzak konbidatzen gaituelako Jesusi ematera, haren bizimodua banatzera, Harengandik benetako maitasuna ikastera, egunero Aitaren borondatea betetzen jarraitzera, bizitzako lege handi bakarra baita. Egunero, nahiz eta arazoak eta larritasunak, nekeak eta erorketak egon, nahiz eta Kristori jarraitzeko bidetik irteteko eta geure buruaren barruan, gure egoismoan, sartzeko tentazioa izan, Jainkoaren maitasunera Kristoren bitartez irekitzeko daukagun premiaz konturatu barik, justizia eta maitasun logika bera bizitzeko.

[...] Garizumako une egoki eta graziazkoak esanahi espirituala bera erakusten digu esaldi zaharren bitartez: "Gogoratu hautsa zarela eta hauts bihurtuko zarela", apaizak esaten duen moduan buruan errauts apur bat ezartzen digunean. Horrela gizakion historiaren hasierara bidaliak gara, Jaunak Adani esan zion moduan jatorriko erruaren ostean: "Zeure bekokiko izerdiz jango duzu ogia, lurrera itzuli arte, handik izan zara hartua eta: hautsa zara eta hautsera itzuliko zara" (*Has 3,19*). Hemen Jainkoaren hitzak gure hauskortasuna gogoratzen digu, baita gure heriotza ere, hori baitu muturreko itxura. Amaieraren berezko beldurraren aurrean, are gehiago kultura baten testuinguruan hainbeste eratan hitzeko giza esperientzia eta errealtatea, Garizumako liturgia, gaitzesten duela. Giro horretan beraz, alde batetik, heriotza gogoratzen digun errealismo eta jakituriarako konbitea egiten digu, baina, beste alde batetik, heriotzaren beraren errealtatetik askatzen duen kristau fedearen ustekabeko berritasuna hartzera eta bizitzera bultzatzen gaitu".

### 2. Basamortua, Jainkoarekin bat egiteko leku (María José Torres)

"Basamortua leku sinboliko eta geografikoa da, bakardadearena, probarena, Jainkoaren esperientziarena barru-barruko biluztasunaz. Basamorturantz abiatzeak adierazten du kontenplaziozko bizimodua, azalean finkatutakoa uzten eta errealtatea eta gure izatea barru-barrutik hartzen joateko. Barrutik bizitzeko modua, bakardadetik eta bilaketaren benetakotasunetik, gizakiago bihurtzeko prozesuan sartzen gaituena, gure

izate osoari utziz Munduko Jainkoarengan arreta jartzen.

Horrek barruko bide bat dakar, beldur arrazionalizazio eta gurariak eten egiten dituen, Jainkoaren esperientziara irekitzen joan gaitezen gure egia osotik abiatuta. Kontenplaziozko bide bat, errealtatera irekitzen gaituena, azalekoa zultzera eramaten gaituena eta errealtatearen beraren misterioa igartzen uzten diguna: Jainkoaren taupada gizateriaren grina sakonetan eta naturaren deiarretan.

Basamortura irteteko esperientziak gure izaera batzen eta indartzen doan esperientzia bat da, esanekoa izateko eta ez izateko askatasuna eta ausardia posible egiten du, baietz esateko eta Jainkoaren kausak hala eskatzen duenean ezetz esateko. Gure sentsibilitatea fintzen du ankerkeria eta sufrimendu basamortuak hartu eta laguntzeko, eta gure izaerako "antenak" irekitzen ditu *beste mundu bat posible delako* esperantza hartu eta laguntzeko".

### 3. Basamortua hirian (Pierre-Marie Delfieux)

"Jainkoa hirian dago eta han aurkitu daiteke. Hiriak, izan ere, badauka Babelen erakargarritasunetik zerbait, baina baita beste mila tentazio ere etengabe Jaunarengandik desbideratu gaitzaketenak. Baina basamortuan ere izan ditzakegu tentazioak. Bakardadeen artean berritsuak izan gaitzake eta klaustroen gerizpetan munduko. Jainkoa hirian dago eta han bilatu behar da. Deitzen duenari irekiko dio. Eskatzen duenari emango dio. Eta hura bilatzen duenak aurkituko du.

Gai honetan hainbeste urtean entzundakoak entzunda, sarritan esaten dut elizarik handiena metroa dela. Jakingo bagenu zenbat mila eta mila otoitz esaten diren han egunero, goizean goizetik hasi eta gau berandura arte! Zeruan harritu egingo gara aurkitzen ditugunean metroan, autobusean, taxian eta autoetan santu egin direnak arrosario-bihiak garantzen edo, besterik gabe, ingurukoengatik otoitz egiten.

Batzuetan gustatzen zait hiria irudikatzea, Verlaine bezala nire gelatik adieraziz, "teilatuen gainetik". Han, gure begien azpian, katedralaren inguruan, eliza horiek guztiak, basilikak, kaperak, oratorioak, komentuak, monasterioak, mila eta bat otoitz-argi ikusezin sutan eta distira egiten egunean zehar eta gauerdian... Jainkoa hor dagoela adierazten duten beste hainbeste zeinu dira.

Amaetxeetatik hil-beiletara, ospitaleko oheetatik presoan geletara, apartamentu aberatsetan eta ganbara usteletan, kristalezko dorreetan egindako

bulegoetan, tailerretako lur-azpietako iluntasunean, dendetan, leku guztietan ezpain batzuek otoitza darabilte marmarrean, esku batzuk zerura doaz, arima batzuk Jainkoarengana bueltatzen dira. Bihotzak oihuka, zurrumurruka, hasperenka, kantuan Jainkoari. Nolatan ez dugu hirian aurkitzen, begiak zabalduz gero bidegurutze guztietan aurkitzen ditugu eta? Plazen erdian dago. Kaleetan zehar doa arineketan. Etxe bakoitzaren atzean bizi da eta berak argitzen du hiri osoa bere Hitzaren argiarekin eta mila eukaristiatako misterioarekin betetzen.

Hirian otoitz egiten ikasi behar dugu. Zurrumurruek luzatu eta hasperenak eta oihuak zerura igo. Espiritualtasun berria asmatu ere, Zistertarrek landa giroko bizimoduan egin zuten moduan, Teresa Jesusekoak komentuko bizimoduan, Brunok bakardadean, Benitok lanean, liturgian eta *lectio*-an... Baina ez dezagun esan hori ezin dela egin. Ebanjelioak baietz esaten digu (Lk 24, 49). «Lagun maiteak fedean –esaten zuen Carlo Carretto anaiak basamortua hirian aukeratu zutenei zuzenduta– ikusten ez denaren lekukoak zarete, Jainko bakarria sinesten duzuenak, Espirituaren gurtzaileak, Zeruetako Erreinuaren zaleak. Hiriko basamortuan Kristo itzultzea itxaroten duzuenak zarete, lehenengo kristauek bezala esanez: Maranata! Erdu, Jesus Jauna! Kristau horiek beilan daude otoitzean eta haien etxea monasterio berria da». Bai, Jainkoa hirien bihotzean dago, han aurkitu dezakegu benetan eta beti”.

#### 4. Apostoluen “krisiak” Markoren Ebanjelioan

Markoren ebanjelioan argi igartzen da Hamabiek Jesusekin batera egiten duten ibilbidea. Hasierako gogo-olatuaren ondoren (3,7), poza gutxitzen doa. Askok Jesusengandik zeinu deigarrien zain jarraitzen dute eta atzera egiten dute haren mezuak bizitzaren barru-barrura heldu nahi duenean. Apostoluek ere igarri zuten etsipen hori, ia-ia iruzurtzat hartzen dute: Jesusek haien itxaropena zapuztu duela ematen du. Ez dute ulertzen, eta horrek Jesusengan erreakzio batzuk eragiten ditu (8,17-21). Pedro da taldearen nahigabearen irudia, gauzak nola gertatzen diren ikusita haserre agertzen da. Baina lehenago ere, 4. atalean, zirriborrotuta daude ikasleen hiru krisiak, Jesusek parabola bidez erantzuten dituenak. Horregatik, 4. atal horri “krisiaren atala” esaten zaio.

- *Efikazia-krisia*. Jainkoaren hitza eraginkorra da, baina ez du berez-berez fruiturik ematen (4,1-9). Hazia ez da erneko txoriek jaten badute (garaipen eta gehiago izateko guraria), sustraia botatzen ez badu (kanpoko onarpena, estetikoa eta esnobista) edo itotzen bada (oraingo bizitzako ardurek, diru eta botere goseak itota).

- *Erantzukizun-krisia*. Hazia lurraren ezaugarrietara egokitzen den arren, egia da –beharrezko kontrapuntua– bakarrik hazten dela (4,26-29). Horrela Jesusek irakatsi nahi du hitzak bere garaian fruitua ematen duela, ez galtzeko itxaropena, konfiantzaz erein behar dela, berak bakarrik ere emango duela fruitua.
- *Garrantzi-krisia*. Mostaza-haziaren parabolak (4,30-32) taldearen beste egoera baten erantzuna izan nahi du. Apostoluek ikusten dute apurka-apurka jarraitzaile-taldea gutxitzen doala, jende askok ez duela seriotan hartzen Maisua. Jesusek haien konfiantza lantzen du, letra zuri bat sinatzeko eskatzen die. Jainkoaren Erreinuak zerbait mugagabea sortuko du zerbait txiki-txikitik. Hori da hazteko daukan logika berezia.

#### 5. Hitzaldia Barbastroko martiriak dohatsu egitean (Joan Paulo II.a)

“Seminario osoak aurre egingo dio martiri-eskaintzari Jaunarentzat, eskuzabal eta ausardiaz. Gazteon sendotasun espiritual eta morala ikusi duten lekukoak eta idatzien bitartez heldu zaigu. Horretan oso esanguratsuak dira apaizgai gazteek eman dizkiguten adierazpen pertsonalak. Batek bere familiari idaztean hau dio: “Lerro hauek hartzean Jaunari kanta, niri eman didan martirioagatik, dohain handi eta berezia baita”. Beste batek hau idatzi du: “Gora Mariaren Bihotz Garbia! Erlijiosoak izateagatik bakarrik hiltzen gaituzte” eta bere ama-hizkuntzan jarraitzen du: “No ploreu per mi. Soc märtir de Jesucrist” (Ez egin negar niregatik. Jesukristoren martiria naiz).

Martiriok adierazten dute erabaki sendoa dutela abadetzan jarduteko honela hitz egiten dutenean: “Ezin dugunez ministerio santua lurrean bete, bekatiariak konbertitzeko lanean, Santa Teresitak bezala egingo dugu: gure zerua igaroko dugu lurrean ongia eginez”.

Hartu ditugun lekukotasun guztiak ikusita, esan daiteke kletarrak Kristoren jarraitzaile izateagatik hil zirela, fedeari eta boto erlijiosoei uko egin nahi ez izatearren. Horregatik, haiek isuritako odolaren bidez Jainkoaren Hitzarengatik bizitzera eta hiltzera animatzen gaituzte, hori iragartzeko deituak izan baikara.

Barbastroko martiriek, San Antonio Maria Claret fundatzaileari jarraituta, bizi zela hark ere atentatu bat izan zuen eta, gurari bera izan zuten odola emateko Jesusen eta Mariaren maitasunagatik, esaldi honen bitartez adierazita kantuan: “Zuregatik, nire Erregina, odola eman”. Santuak berak bizitzako programa prestatu zuen bere erlijiosoentzat: “Mariaren Bihotz Garbiaren seme bat karitatean sutan egon eta doan lekutik dena erretzen duen pertsona bat da; nahi du

eta ahalegintzen da, mundu osoan Jainkoaren maitasunaren sua pizteko”.

## **6. *Usque ad mortem* (Heriotzaraino) (Timothy Radcliffe)**

“Eukaristia bakoitzean Ostegun Santu gaueko krisia gogoratzen dugu. Jesusek aukera izan zuen krisi hartatik ihes egiteko, baina ez zuen egin. Besarkatu eta emankor bihurtu zuen. Horrela, gure aurrean biderik batere ikusten ez dugula bagaude, eta maleta egin eta alde egiteko tentazioa badugu, orduan hain justu izan daiteke unea gure bizitza erlijioso hazi eta heltzeko. Jesusek Azken Afarian bezala, horixe da gertatzen ari dena onartzeko, fruitua emango duelako itxaropena izateko unea. Hori sartzen da gure bokazioa itxaropen-lekukotasuna izatearen parte da.

Baliteke krisi horiek gure elkarten heriotzari aurre egin behar izatea ere. Europa Ekialdeko monasterio askorentzat, ez dago etorkizunik. Egoera horri pozik aurre egingo diogu? Probintziala nintzela, Carisbroke izeneko monasterio bat ikustera joan nintzen, hiltzeko zorian zegoela. Lau moja baino ez ziren geratzen. Mojetako batek esan zidan: “Timothy, baina Jainkoak ezin da Carisbroke hiltzen utzi, ezta?” Eta aurreko Probintzialak, nirekin zegoela, esan zuen: “Berak utzi zuen Semea hiltzen, ezta?”... Nola izango gara heriotzaren eta piztueraren lekuko beldur bagara gure elkartearen heriotzari aurre egiten?

Orain dela urte pare bat Erroman kongresu bat egin zen bizitza erlijiosoaz eta askok galdetu zuten ia heriotzara arteko profesioa oraindik ere beharrezko ote zen bizitza erlijiosoan. Ni gure elkarteak era guztietako lagun, zale eta laguntzaileei irekitzearen aldekoa naiz, baina beti babestuko nuke gure bizitza erlijiosoaren erdian gure bizitzak heriotzara arte, *usque ad mortem*, emateko ausardia egotea. Keinu bakana da, eta horrek adierazten du gure itxaropena, giza bizitza oso-oso, azkeneraino, heriotza barruan dela, deika daukagun Jainkoarenganako bidea dela”.

## **7. Heriotzarekin aurrez aurre (Francisco Conteras, CMF)**

“Minbiziak aurre-aurrean jartzen dizu heriotzaren errealitate mingotsa. Jende gehienarentzat, minbizi oraindik ere heriotza-zigorra da. Horma handi bat jartzen da, ez dizu aurrera egiten uzten, bere baldintzak ezartzen ditu goitik behera: laster hilko zara. Heriotzak epaia emanda, bizitzaren hasperenak lehertuta, esaten duzu: «Amaitu da, ez dago konponbiderik».

Nigana hurbilduta, baliteke norbaitek ni kontsolatu nahi izatea arrazoi zuritzaile honekin:

- Apaiza zara: beraz ez zenuke heriotzaren beldurrik izan behar.

Edozein fededunengana ere joan daiteke:

- Zuk fedea daukazu, eta kristau fedea heriotzaren beldurra kentzen du.

Nik orain nire buruaz erantzun behar dut. Egia da, apaiza naiz: piztueran eta bizitzan sinesten dut. Gure Jauna piztu da eta, haren errukiaren bitartez, harekin piztea espero dut. Askotan egin dut hitzaldia heriotzaz, hileta asko egin dut eta jende nahigabeari Jaunaren kontsolamendua eramaten saiatu naiz. Inoiz ez dut arimen aldeko mezarik eman ohitura edo errutinagatik; bihotza eta arima jarri ditut ospakizun honetan, barru-barruan, hildakoa Jainkoaren seme edo alaba delako eta merezi duelako; eta han dauden senideek memoria zintzoa hartu nahi dutelako bizi eta hilen Jesukristorekin elkartzera doan senide maiteaz.

Orain denbora asko ez dela, frantses liburu bat irakurri nuen. Izenburua zuen *Alderik luzeena*. Antza denez, alderik edo distantziarik luzeena burmuinetik bihotzera doana da. Zati hori –gizakiaren espazioaren paradoxak!– marra txiki-txiki bat baino ez da.

Buruz dakizkigu gauzak. Badakigu heriotza badagoela. Baina zer ezberdina den konturatzea egun edo arratsalde batean aurrez aurre topatuko duzula, heltzen ikusiko duzula: ukitu eta bete-bete harrapatuko zaitu. Zer zaila den onartzea, argitasunez, berehala datorrela. Zenbat bide ibili behar den eta zer aldats gora egiten zaigun errealitate hori, horretarako diseinatuta egon arren, jaiotzen garen unetik bertatik ezinbestean destino hori daukagula.

Behin azken oliadura eman nion kristau bati, infartu gogorak jota. Seniderik hurrekoenak esan zioten laster hilko zela, eta Jaunarekin bakez jartzeko. Harrigarriena berak esan zidana izan zen:

- Nik inoiz ez dut pentsatu hilko nintzenik. Hilen meza askotara joan izan naiz –esaten zuen hitzez hitz eta atsekabez–, baina beti pentsatu izan dut defuntua, hilkutxan zegoena hiltzen zela, ni ez, ni inoiz ez. Eta ikusten duzu, lehenengoz darabilt nire heriotza buruan eta, antza denez, azkena izango da.

Horixe gertatzen zaigu gehien-gehienoi. Zapi sendoa jartzen dugu begietan. Itsututa gabilitza bizitzan zehar. Denok dakigu gutxi gorabehera hil egingo garela. Baina, nork sinesten du benetan? Nor bizi da heriotzara begira haren arduraz?

Hausterre egunean liturgia berezia egin genuen, eta gaur egun ere harrera ona izaten du Jainkoaren herrian. Nik parte hartu izan dut erritu horretan, Garizuma hasteko, bai kristau gisa bai apaiz gisa ere.

Meza ematen duen apaizak buruan ipintzen du errauts apur bat eta hitz hauek esaten ditu:

- Gogoratu hautsa zarela eta hauts bihurtuko zarela.

Baina inork ez dauka gogoan «hauts maitemindu» hori, Quevedok soneto ospetsuan kantatu zuen moduan. Heriotzaren amnesian hazten gara. Ez dugu ikusi nahi. Uko egiten diogu. Ahaztu. Eguneroko afanak, arazo eta gertaeren ibilbide

halabeharrekoak, haize bortitzaren moduan, putz egin eta gure burutik kentzen ditu heriotza gogoratzen digun hautsa”.

## 8. Bizitzako “krisiak” (Erik Erikson)

Erik Eriksonen (1902-1994) nortasunaren garapenaren gaineko teoria bat sortu zuen, "Teoria psikosoziala" izena jarri zion. Zortzi aldi deskribatzen du bizitzako zikloan edo maila psikosozialean (krisiak edo istiluak bizitzaren garapenean) eta horiei aurre egin behar diete pertsonak. Hona lauki orokorra eta, ondoren, azken hiruren aurkezpena:

<b>“KRISIAK” BIZITZAKO ZORTZI ALDIETAN ERIKSONEN ARABERA</b>				
<b>GATAZKAK</b>	<b>GUTXI GORABEHERAKO ADINA</b>	<b>OINARRIZKO BERTUTEAK</b>	<b>GERTAERA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>
<b>1. Oinarrizko konfiantza / Oinarrizko mesfidantza</b>	0 hiletik 12-18ra	BULTZADA ETA ITXAROPENA	<b>Elikadura</b>	Haurrak lehenengo maitasun-harremana ezarri behar du zaintzen duenarekin edo mesfidantzaren zentzua garatu.
<b>2. Autonomia / Lotsa eta zalantza</b>	18 hiletik 3 urtera	AUTOKONTROLA ETA BORONDATEA	<b>Esfinterren kontrola</b>	Haurraren energiak gaitasun fisikoak garatzera bideratzen dira (ibili, jan). Haurrak kontrolatzen ikasten du, baina lotsa eta zalantza garatu ditzake ondo moldatzen ez bada.
<b>3. Ekimena / Errua</b>	3 urtetik 6ra	ZUZENDARITZA ETA HELBURUA	<b>Independentzia</b>	Haurra adierazkorragoa egiten doa eta gero eta ekimen gehiago hartzen, baina gehiegi behartzen bada erruduntasun sentimendua eragin daiteke.
<b>4. Ardura / Gutxiagotasuna</b>	6 urtetik 12ra	METODOA ETA GAITASUNA	<b>Eskola</b>	Haurrak gaitasun berriak ikasteko eskaerari erantzun behar dio. Bestela, gutxiagotasun, porrot edo gaitasunik eza sentitzeko arriskua du.
<b>5. Identitatea / Rol nahastea</b>	Nerabezaroa (12 urtetik 18ra)	LEIALTASUNA	<b>Harremanak besteekin</b>	Nerabeak nortasuna lortu behar du lanean, generoan, politikan eta erlijioan.
<b>6. Intimitatea / Bakartasuna</b>	Heldu gaztea (18 urtetik 35era)	AFILIAZIOA ETA MAITASUNA	<b>Maitasun-harremanak</b>	Heldu gazteak harreman estuak behar ditu edo bakartasun sentimenduak jasan.
<b>7. Sorkuntza / Gelditzea</b>	Heldu ertaina (35 urtetik 65era)	EKOIZPENA ETA ZAINTZA	<b>Gurasotasuna</b>	Heldu bakoitzak aurkitu behar du hurrengo belaunaldiari erantzun eta laguntzeko.
<b>8. Zintzotasuna / Etsipena</b>	Heldu nagusia (65 urtetik azkenera arte)	UKO EGITEA ETA JAKITURIA	<b>Bizitzaz gogoeta eta onartzea</b>	Bizitzaren azkenera heltzea norbera onartzeko zentzua eta betetasun zentzua da.

Helduaroko krisi guztiek lotzen dute giza harremanen kalitatea.

- *Helduaro gaztea* (18-35 urte). Helduaroako lehenengo aldi honetan, krisia *intimitatea bakartzearen aurka* sortzen denean, norbanakoa gizarteko kide oso moduan hasten da. Niaren nortasunak behin betiko indarra hartzen du ikasketa eta lanera kontsaktatzean, eta baita ere gizarte intimitatean beste sexuarekin, eta lagunak aukeratzean nortasun osagarridunak. Helduaroako lehenengo aldia gaintitzeak nortasun konpartituari zentzua aurkitzea eskatzen du. Intimitatea beste pertsona batzuekin harreman sakonagoak izateko jarrerari dagokio, harreman bat izateko helburuarekin, beti ere oinarria elkarren premia bat baino gehiago dela. Nortasun zentzu bat nahikoa indarrez lortzen ez duenak beldurrerako joera izango du, beste pertsonak estutuko ote duen, eta bere bakardadean ixteko arriskua izango du.
- *Tarteko helduaroa* (35-65 urte). Aldi honetako istilua *geratzearen kontrako gaitasun sortzailea* da. Gaitasun horrek hurrengo belaunaldiei arreta jartzea eta gidari egitea eskatzen du. Zentzua, orduan, izango litzateke hurrengo belaunaldiari pertsona horrek metatu dituen itxaropenak, bertuteak eta jakituria ziurtatzea. Hor sartzen da gizartearen ahalegin eta interesengatik ardua hartzea, babes emanez haurren zaintza eta heziketarako eta hazten doan pertsonaren bizitzara bilduko diren tradizioetarako neurriei. Erronka da belaunaldi berria norberaren erantzukizuntzat hartzea eta konfiantza ziurtatzea, garapeneko lehenengo aldian oinarrituta, hau da, konfiantza izan bizitzak zentzua daukala. Oinarrizko ezaugarriak dira produktibitatea eta sormena ere.
- *Helduaro aurreratua* (65 urte-bizitzaren amaiera). Zintzotasunaren eta etsipenaren arteko istiluaren ondorioak niaren zentzua finkatzea eta norberaren historia bakar eta aldaezintzat hartzea dakar.